

Tristán Ulloa eta Ramón Camposekin egindako afari bat, telesailei eta politikari buruzko hitzaldi bat eta telesailetan sexu abusuei ematen zaien tratamenduari buruzko beste bat izango dira ostiralean, CROSSOVER jaialdiaren programazioan

Apirilaren 26an, ostirala, CROSSOVER jaialdia Koldo Mitxelena Kulturunera (Santa Teresa komentua) itzuliko da «**Ikusle gonbidatua**» saileko saio berri batekin. 17:30ean izango da, eta **Andoni Munduate** izango du protagonista.

18:30ean, edizio honetako plater nagusietako baten txanda izango da: **Emilio Doméstico** eta **Pedro Vallín** egileek politikari buruzko hitzaldi bat eskainiko dute. Telesailek betidanik heldu diote politikari ikuspuntu oso desberdinetatik; horren adibide dira **Veep** satira, **House of Cards** thrillerra edota **Scandal** kulebroia. Ipar Amerikako politika ez da, ordea, telesailen unibertsoan presente egon den bakarra. **Vota Juan** edo **Borgen** telesailek, esaterako, Europako sistema politikora hurbiltzen jakin dute, oso ikuspuntu desberdinetatik egin ere.

Santa Teresan, baita ere, 20:00etan, **Paloma Rando** gidoilariak mahai-inguru bat moderatuko du. Mahai horretan, **Ana Marcos** kazetaria egongo da, El País egunkariko ikerketa-taldearen buru izandakoa eta **Carlos Vermuti** buruzko artikulua zuzendu zuena, eta baita **Belén Barenys** aktore eta **Autodefensa** telesailaren sortzailea ere. Hitzaldia sexu abusuen delituak jorratu dituzten telesailei buruzkoa izango da; **Cardo**, **I may destroy you**, **Girls** edota **Autodefensa** horren adibide.

CROSSOVER jaialdiaren programazioa ixteko, gastronomia eta telesailak konbinatzen dituen «**Gourmet telesailak**» atalaren beste edizio bat izango dugu. Hainbat telesailetan inspiratutako platerak bilduko dituen afari batean, **Alberto Rey** kritikaria **Ramón Campos** ekoizle eta sortzaile ospetsuarekin eta **Tristán Ulloa** aktorearekin hizketan arituko da, haien ibilbide profesional zabalari buruz, eta bereziki nabarmenduko ditu Bambú ekoiztetxearen barruan elkarrekin garatu dituzten proiektuak, hala nola **Gran reserva**, **Fariña** eta **El caso Asunta** (Netflix). Azken telesail horrek duela urte batzuk Galizian gertatu zen krimen makabroa birsortzen du, eta egun horretan bertan estreinatuko da, apirilaren 26an.

Komunikabideekin elkarrizketak egiteko prestasuna

PEDRO VALLÍN, EMILIO DOMÉNECH, ANA MARCOS, PALOMA RANDO eta BELÉN BARENYS 14:00etan iritsiko dira Donostiara.

TRISTÁN ULLOA eta RAMÓN CAMPOS 18:00etan iritsiko dira Donostiara.